

# Naia Aiestaran Iparragirre

**A** maila • 1 aipamena

Naia Aiestaran Iparragirre naiz, 16 urte ditut eta Txindoki institutuan Batxilergoko lehenengo maila bukatzen ari naiz.

Txikitatik gustatu izan zait idaztea, baina orain dela urte gutxi egin nuen olerkigintzara saltoa. Prosak baino lan gehiago eskatzen didan arren, barrenak askatzeko modu politagoa iruditzen zait, eta gehienetan emaitza ere gehiago gustatzen zait.

Olerki honekin jende askok batzuetan sentitu ohi dugun zerbait transmititzen saiatu nintzen. Askotan gu geu izaten gara geure buruari presioa sartuz min gehien egiten diogunak, eta hori da bidali nahi izan nuen mezua.

Ez dut gehiago kontatuko, zuen gustokoa izatea espero dut!



## BADATOR BERRIZ

Badator.  
Badator berriz..

Bere eskutzar  
ahalguztidunak  
nire lepo dardartian  
ipini  
eta  
uretara bultzatu nau.  
Uretan murgildu du  
bere ernegua,  
eta  
horrekin batera,  
nire ilusioak,  
ametsak,  
esperantzak...

Bere eskutzar  
ahalguztidunak

nire lepo dardartian  
ipini  
eta  
urpean eduki nau.  
Urpean galdu da  
betiko  
nire sosegua,  
eta,  
horrekin batera,  
nire indarra,  
grina,  
bizipoza....

Garrasi egin nahi dut.  
Besoak mugitzen ditut,  
bortizki.  
Indarka ari natzaio  
aska  
nazan.

Baina ez du etsitzen.  
Berean darrai.  
Eta nik  
ezin diot  
aurre egin.  
Indartsuegia da.  
Ezin dut gehiago.  
Ito egingo nau.

Bat batean,  
gihar oro  
uretan iltzatzeaz  
nuelarik,  
burua atera dut  
uretatik.  
Burua atera dut  
herioaren  
hatzaparretatik.

Amesgaizto hotzetik  
burua atera  
eta  
haize gozoa arnastu dut,  
lasaitasuna arnastu dut.

Itota nahi ninduen  
eskutzarrak  
bizirik  
nahi nau  
orain.

Orain,  
badakit  
neurea dela  
jipoitzen,  
itotzen,  
suntsitzen,  
azaleratzen,  
salbatzen  
eta bizirik mantentzen nauen  
eskutzarra.  
Ni neu naizela  
lepotik heldu  
eta  
birikak hustu arte  
zapaltzen nauen  
munstroa.

Zergatik  
egiten  
dugu  
geuk  
tarteka  
bizitza  
itogarri?

Badator.  
Badator berriz.